



Idatzi honen bidez, sortu berri dugun elkartearen berri eman nahi dizuegu.

Irunen bertsoaren bilgune izateko sortu den Irunabar elkarteak, gure herrian somatzen genuen hutsune bat betetzeko asmoa du, hau da, bertsoak dituen bide ezberdinen bilgune izatea.

Bertsozaletasuna indartzea, bertsozaleak biltzea eta bertso eskolak lagundu eta sortuz, etorkizunean Irunen bertsolaritza zihurtatzea dira, besteak beste, Irunabarren helburu nagusienak.

Helburu eta asmo guzti hauen berri Maiatzaren 24an egingo dugun batzarrean emango dugu arratsaldeko 5 terdietan Irungo Mendizaleak elkarteak Larretxipi kalean duen egoitzan.

Batzarrean elkarte sortzeko arrazoiak eta aurrera begirako asmoen berri emateaz gain, Irungo bertsozaleen bilgune izateko asmotan, bazkide zerrendari hasiera emango diogu, nahi duen Irungo bertsozale orok bertan izena emateko aukera izango duelarik.

Gaueko bederatzietarako berriz, aurkezpen eguna borobiltzeko asmotan, bertso afaria antolatu dugu EKT elkarteak: Julen Zelaieta, Alaiia Martin, Beñat Gaztelumendi eta Manu Goiogana izango dira mahaiaren bueltan bertsoan arituko diren bertsolariak.

Harremanetarako bideak:

685727539 (Aitor)

605749256 (Gotzon)

675005894 (Manu)

[irunabar@euskalerrria.org](mailto:irunabar@euskalerrria.org)